

## X. Pericay-F. Toutain, 1986, VERINOSA LENGUA

Barcelona, Empúries

Kataluniera garbi, arkaiko eta jasoaren eta eredu errealistago bat defendatzen dutenen arteko polemika zaharra puri-purian jarri da Katalunian, azken urte hauetan, komunikabideetan kataluniera erabat erabiltzen hasi direnean. Euskarak bezalaxe katalunierak ere pertsekuzio gogorra jasan zuen frankismoaren urteetan, horren ondorioz eta beste zenbait faktorerengatik, gaztelaniak eragin nabaria izan du katalunieraren baitan eta urte luzeetan eskola kataluniarrik ez zela izan kontutan hartzen bada ez da harritzekoa eskuliburuetan ikasten den edota liburuetan irakurtzen den hizkuntzaren artean eta berez jendeak dakienaren eta etxeko harremanetan tresnatzat erabiltzen duenaren artean osin sakon samarra egotea. Baina hain zuzen ere, iruzkingai dugun liburuaren egileek ez dute ikusten egoera honek ezinbestez honela irauten behar duenik eta hizkuntz pertsonalitate bikun honek noiz arte jarraitu behar duen galdetzen dute. Bi idazle eta filogogo gazte diren Xavier Pericay eta Ferran Toutainek arazo honixe ematen diote aurpegia eta polemika astrapalatsua sortuz egiten dute tesi ofizialen errotikako kritika.

Liburuaren hitzaurrea egin duen Joan Ferraték dioenez, “**Verbosa Lengua**, *bistan dago, inori baino lehenago bi belaunaldi gazteenei zuzendua da, zeinen azken promozioa orain hogeitun urte egin baita. Nik bezala, lurralde honetako zirkulu intelektualetan beti nagusi izan den koldarkeria eta erretizentzia inoiz naturaltzat onartu ez dutenez (eta agian, horrexegatik pasa dut neure bizitzaren erdia kanpoan, eta inolako sentimenturik gabe) izugarri adoregarria izan behar du ikusteak zeinen, ausardia lasaiez agertzen diren beren kontrako jarrera gure baitan praktikatu nahi duten errepresioaren aurrean (orain, ordea, herrialdearen barrutik) eta salatzen dituzten gizon eta erakunde arduradunak”.*

Ironia finez eta kazetari-eskuari darion arintasunez idatzirik dagoen liburu honek sarrerako ohar bat eta hiru atal nagusi ditu, baina guztiek arazo berdina jorratzen dute, naiz eta ikuspegi desberdinak ukitu: kataluniera errearen eta beronen bertsio formalizatuaren artean dagoen etenarena.

Autoreen ustez, kataluniar hizkuntz komunitateko hiztunak desorientaturik aurkitzen dira gaur egun, eta egoera honen zergatikoa ez da soilik gaztelaniaren interferentzia, baizik eta hizkuntzaren ikuspegi esentzialista eta praktikotasun gutxikoa ere bai. Lehen kausari buruz liburu asko idatzi dira eta adituek orrialde ugari eskaini dizkiote. Aldiz, bigarren arrazoi edo kausak,

iruzkin barreiatu batzu besterik ez ditu izan eta garrantzi handiko arazoa den arren, beti ezikusiarrena egin izan zaio. Horregatik, liburu honetan egileek ahalegin berezi bat egiten dute hizkuntz eredu jakin bat mamitzen lagundu duten barne-faktoreen inguruan ikerketa ardaztuz.

Lehen atalean normatibaren alderdi ideologiko batzu eta joera delakoa “esperantista” aipatzen dira eta lehen gogoeta hauen ondorio gisa hau diote: *“No hem d’esperar que la normalització ens vingui de les altures. Ens vindrà a través de l’ús sense restriccions de la llengua, i poden tenir-hi un paper els mitjans de comunicació suposant que sapiguen complir-lo: forçar les institucions acadèmiques a reconsiderar els seus plantejaments amb una política de fets consumats; no pas servir de corretja de transmissió amb objectius pedagògics com és el cas del diari Avui”*.

Bigarren kapitulan, **Institut d’Estudis Catalans** erakundearen aipamena egiten du saiakerak eta Pompeu Fabrak bere Hiztegiaren sarreran aitortu zuenez, badirudi zirkunstantzia historiko aldekoetan, beronek burutu behar zuela hark aipaturiko ezaugarriak izan behar zituen hiztegi berria. Baina askoren etsipenerako mende erdian sortu den histegi ofizial bakarra **Diccionari de la Llengua Catalana**, Fundació Enciclopedia Catalanak egina, Pompeu Fabraren proiektutik aldendu ezezik, aurrekoa baino ere azkoz arauemailagoa dela jukatzen dute saiakeraren egileek. “Obra kulturalista”tzat jotzen dute, egunero-ko hizketaren erabilera hedatuenak ozta-ozta kontutan hartzen dituela aitortzen dute. Ondoren diote agi denez Institut d’Estudis Catalansen lekua enpresa pribatu batek hartu duela eta frankismoaren garaietan laudagarria bazen ere ekimen pribatuak erakunde publikoen hutsunea betetzea, eragozpen politikoak gainditu ondoren egoera hau betikotzea ez dela zuribidetzekoa. Beraz, erakundeekin batera, hizkuntza bera ere pribatizatzearen arriskua salatzen dute Pericay eta Toutainek.

Hirugarren kapitulan “El gec i la talla” izenburupean Gabriek Ferrater idazle eta gramatikariari egindako ekarpen eta eskainitako ikuspuntuaren iruzkina egiten da: *Sobre el llenguatge*, GECaren barneko “catala” artikulua eta abar katalunierari buruzko diskurtsu berri baten abiarazle dira. Mugak azpimarratzen aritu ordez, Ferraterrek ahalbideak ikuserazteari hobesten dio. Ferraterrek erabilerari, *parole*, deritzonari garrantzi berezia ematen dio, eta denbora gutxi galtzen du hizkuntzaren iragan aintzatsuak gogoratzen.

Laugarren kapituluak, Pompeu Fabra kataluniarren historiako mitorik eman korrenetako bat izan dela aitortzetik hasten da. Badirudi ondorengoek haren lana absolutizatzeari erosoago eta errentagariago iritzi izan diotela, berak hasitako lanari nahiko zukeen jarraipena eman ordez. Honek arrazoi argi bat izan du liburuaren egileentzat: *“En un país on sembla que la llengua és molt més que un simple mitja d’expressió del pensament, poder-la administrar és, per descomptat, un privilegi. I fins i tot llecs els privilegis no els atorga el poble”*.

Liburuaren hirugarren atala Juan de Valdésék bere **“Diálogo de la Lengua”**-n idatzitako pasarte batez hasten da, non afektazioa arbuizaten baita. Ondoren literatur heredentzia, hizkuntzaren burokratizazioa, hizkuntzalarien hizkuntza, komunikabideetako hizkuntza estandarda eta erregistroen estandardizazioa bezalako gaiak aztertzen dira.

Eta seigarren eta azken kapituluak kataluniar hizkuntza eta idazlearen arazoari heltzen dio: populismoaren anatema, aukera gutxiko abanikua eta urrats galduak bezalako gaiak sakontzen dira. Bost idazleren obra aztertzen da

(Jaume Cabré, Lluís Racionero, Pero Gimferrer, Quim Monzó, Toni Pascual) eta ondorio gisa esaten dute egileek ez dagoela ilusio handiegiak egiterik kataluniera literarioaren berrikuntzaz. Gainera esaten dute, lauogeigarren urteetako autoreek, oro har, daukaten formazio linguistiko eskasa ikusirik, erretorizismo hanpatua oraindik kaltegarriagoa izan daitekeela eta berauen artean denetik aurki daitekeela: arkaismo ahaztuenetik hasi eta gaztelanismo ustegabekoenerainoko guztia, aldaera dialektal eta azken orduko arruntkerietatik igaroz.

Normaltasun-zantzuak hartzen ari den koktel artifizial honek egituratuko duela literatura modernoko kataluniera behin betirako uste dute Pericay eta Toutainek.

Azken ohar gisa, autoreek diote zenbait jarrera ideologikok katalunieraren gainean izan duten monopolioak ukatu egin duela hizkuntzaz baliatzeko eskubidea, aldi berean kataluniera-hiztun guztiek ezinbestez onartzekoak ez ziren fede-aitorpenetan partaide izan gabe. Eta horregatik ia eragotzi egin diotela kataluniera modernoari beren funtzioa osoki betetzea, hots, pentsamendu eta komunikaziorako tresna izatea. Eta galdera pare batekin amaitzen da saiakera. *“Komunikabideen, nazioartekotzea nagusitzen ari den testuinguru batean eta hizkuntzak beren balio funtzionalagatik gailentzen ari direnean, ulergarria al de postulatu esentzialistetatik eta beste hizkuntza batekiko oposiziotik definituz jarraitu nahi duen hizkuntza baten iraupena?, posible al de hizkuntza bat normaltzea berau erabat normala egiteko asmorik gabe?”*

Verinosa Llengua saiakera honek inor gutxi utziko du axolagabetasunean katalunieraren munduan sartuta dabilzanean artean. Irakurleak alde edo kontra jarri beharko du, eta agian, oreka baten bila abiaraziko du, baina zeresanik ez dago katalunieraren etorkizunerako garrantzi handiko auzi bat planteiatzen duela. Euskaldunok ere badugu zer ikasia eta pentsatua liburu honen irakurketan, izan ere bertoko arazoak, alde edo modez, gure artean ere bizirik baitaude zenbait sektoretan eta erakunde ofizialen batzu ere ez daude erabat libre hemen salatzen dena bezalako euskara mota bat boterearen gaindegietatik ezarri nahi izatetik. Guk ere hobe genuke sinbolo gutxiago eta errealtate gehiagoz geure egintzak hornituko bagenitu, baina horretarako konplexu batzu haizatzetik hasi behar da eta gauzei aurrez-aurre begiratzetik. Exenplu bikaina bi filologo kataluniar gazte hauek ematen digutena.

X. Mendiguren